



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Juan Laborería baritonoak eta Carmen Santamaría pianistak Kantauri itsasoko ertzeko emakume artisten musika eta poesia interpretatuko dituzte

- Kontzertua Lied Arriagan zikloaren barruan dago eta apirilaren 14an izango da, asteartean, 19:30ean, Arriaga Antzokiko foyerrean.
- Emma Chacón, María Teresa Prieto, Rosalía de Castro edo Maria Luisa Ozaita dira kontzertu horretan aldarrikatzen diren emakume —konpositore eta/edo poeta— egileetako batzuk.

Bilbo, 2026ko apirilaren 9a.- Datorren astean ekingo dio berriz Arriaga Antzokiak LIED ARRIAGAN zikloaren laugarren edizioari, zeinak formatu txikiko errezitalak eskaintzen baititu, pianoarekin eta ahotsarekin, oro har, Arriaga Antzokiko foyerreko giro intimo eta atseginean. Hurrengo emanaldia apirilaren 14an izango da, asteartean, eta **Juan Laborería** baritonoa eta **Carmen Santamaría** pianista izango ditu protagonista.

Laboreríak eta Santamaríak programa oso berezia prestatu dute, zeinari **Norteñas** izena jarri batitote, eta Kantauri itsasoko ertzean sortutako emakume egileak eta/edo poetak biltzen baititu. Galizia, Asturias, Kantabria eta Euskal Herriko emakume artisten musika eta poesia eskaintzen dituen kanta-emanaldia da, beraz. Emma Chacón, María Teresa Prieto, Rosalía de Castro eta Maria Luisa Ozaita, besteak beste, beren zigilu propio eta paregabeari esker, haien garaiko panorama artistikoa aberastu zuten sortzaileak izan ziren. Errezitalak emakume horiek omendu nahi ditu, haien mezua eta obra bizirik mantentzeko. Kontzertu honetan, Juan Laboreríak eta Carmen Santamaríak XIX. mendean hasi eta gaur egunera arte iristen den musika ibilbide bat eskainiko digute.

Emanaldi hau sortzeko prozesuan, artistak beste lankide batzuen ezagutzaz elikatu dira; liburutegiak, artxiboak eta katalogoak kontsultatu dituzte, eta Ana Fontecha konpositorearen laguntza ordainezina jaso dute.

Lied Arriagan zikloa

Arriaga Antzokia Lied Arriagan zikloaren laugarren edizioa egiten ari da denboraldi honetan eta, aurrean ere, Rubén Fdez. Aguirre maisua da zikloaren koordinatzailea. Ilker Arcayürek eta Malcolm Martineauk inauguratu zuten edizioa iazko azaroan, eta jada 2026an, Ferrán Albrich eta Rubén Fdez. Aguirreren kontzertuez gozatu dugu lehenik eta, duela gutxi, Hera Hyesang Park eta Rubén Fdez. Aguirrerenaz. Beste hiru errezital ditugu oraindik aurretik: hurrengoa Juan Laborería eta Carmen Santamaríak eskainiko dutena da, beren **Norteñas** (datorren asteartean, apirilaren 14an). Azken bien protagonistak Iris Candelaria eta Rubén Fdez. Aguirre (maiatzaren 19an), eta Marisa Martins eta Miquel Ortega izango dira (ekainaren 9an).

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 18 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus